

IKASTURTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA

IKASTETXEA	CPM FRANCISCO ESCUDERO MKP	KODEA	012681	
IRAKASGAIA	BIOLINA	KURTSOA	1. OINARRIZKO IRAKASKUNTZA	

HELBURUAK	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK
<ul style="list-style-type: none"> - Instrumentua ezagutzea. - Instrumentua ondo kokatzeko, alferrikako tentsioetatik libre dagoen gorputz-jarrera egokia izatea. - Parte hartzen duten gorputz-atal guztien mugimenduaren malgutasuna errazten duen gorputz-oreka mantentzea. - Arkua ondo heldu eta erabili ahal izateko, egokia den beso, esku eta hatz eskubien posizioa lortzea. - Kurtsoan zehar landutako arku-kolpeak egokiro egitea. - Ezker-eskuak, bere jarduera errazteko posizio egokia edukitzea. - Ezker-hatzak egokiro artikulatzea. - Bi besoen jarduera eta mugimendua koordinatzea. - Soinu kalitate ona eta afinazio ona izateko aukera ematen duen entzumen-sentirkotasuna garatzea. - Erritmoa, abiadura eta argitasun egokiarekin egitea. - Oinarrizko ñabardura dinamiko kontrastatuak egiteko ahalmena erakustea. - Instrumentua jotzean, muskuluen tonua eta arnasketa egokiro erabiltzea. - Kurtsoaren mailarentzako egokia diren obrak, estudioak eta ariketak egitea. - Maila honetan landutako errepertorioa buruz interpretatzea. - Instrumentua zaintzeko eta ikasteko ohitura onak lortzea. 	<p>1.- Teknika instrumentalaren jabetze-prozesu mailakatua erakustea, soinuaren ekoizpenaren eta interpretazioaren emaitza ona lortzeko zimendu sendoak eratzu.</p> <p>Ebaluazio-irizpide honek, prozesuan parte hartzen duten gorputzaren atal guztien harteko oreka eta koordinazioa errazten duen gorputz-posizio egokia ipiniz, ezagupe berrien ikaskuntzak zimendu sendoen gainean eraikitzen diren ebaluatu nahi du.</p> <p>2.- Estudio eta obretan banakako mailakako ikaskuntza burutzeko ahalmena erakustea.</p> <p>Ebaluazio-irizpide honek, ikaslea irakaslearen esanak bere ikasketan aplikatzeko gai dela, eta horrela, bere errendimendua egoki ebaluatzeko autonomi mailekatua garatzeko gai dela, egiaztatu nahi da.</p> <p>3.- Obrak interpretatzea, dagozkion estilo-irizpideei jarraituz.</p> <p>Ebaluazio irizpide honek, ikasleak, bere heldutasun intelektual eta emozionalaren mailaren arabera, landutako obren oinarrizko alderdi estilistikoaren ezagutza, eta interpretatzeko duen autonomia eta ekimena egiaztatu nahi ditu.</p> <p>4.- Obra edo fragmentu sinpleak bat-batean irakurtzea.</p> <p>Ebaluazio-irizpide honek, ikasleak testu musikalak irakurtzen nolabaiteko autonomiaz aritzeko duen gaitasuna egiaztatzen du.</p> <p>5.- Musika-testuak buruz interpretatzea.</p> <p>Ebaluazio-irizpide honek, oroimenaren bidez, testu musikalaren ulermena eta eskuratutako musika-hizkuntzari buruzko ezagumendu teoriko-praktikoa zein teknika instrumentala barneratzeko ahalmena egiaztatzen du.</p> <p>6.- Jendeaurrean, bere mailaren adierazgarri den zenbait obra, bakarlari gisa eta buruz jotzea.</p> <p>Ebaluazio-irizpide honek autokontrol- ahalmena eta ikasitako obra menperatzen dela egiaztatu nahi du. Baita ere, jendeaurrean jotzeko egoerara zenbateraino ohituta</p>

dagoen ikustea.

EDUKIEN SEKUENTZIA

Lehenengo kurtso honetan eduki berriak banan-bana aurkezten dira, baina ahalik eta azkarren erlazionatu eta bateratu behar dira.

- 1- Instrumentuaren ezagutza: osatzen duten zatiak, bere izenak eta funtzioak; bere familia; instrumentuaren historia laburra.
- 2- Teknika biolinistikoaren mugimendu ezbedinetara ohitzeko aurre-ariketak.
- 3- Gorputzaren eta instrumentuaren posizioa:
 - Alferrikako tentsioetatik libre, malgua eta orekatua den gorputz-posizioa.
 - Instrumentuarekiko sentimendu fisikoaren garapena.
 - Mugimenduen orekaren printzipioak eta kontrola.
- 4- Arkoaren teknika eta soinu-produkzioan duen eragina:
 - Eskubi-eskuaren posizioa.
 - Eskubi-hatzen funtzioak.
 - Eskubi-besoaren artikulazioen eta pisuaren kontrola.
 - Hatzen malgutasuna eta oreka.
 - Arkuak ondo gidatzea. Entzumenaren bidez kontaktu-puntu egokiaren bilaketa. Arkuaren zati guztien erabilpena (arku osoa, goiko-erdia, beheko-erdia, erdia eta herenak).
 - Oinarrizko arku-kolpeak: *detaché*, *martelé* eta *legatoa*.
 - Hari ezberdinei dagokien besoaren planu ezberdinen ezagutza. Hari aldaketak.
 - Hari bikoitzak airean egiten hastea.
 - Kalitatezko soinuaren kontzeptua eta bilaketa. Zerdak eta harien harteko kontaktu egokia.
 - Autoentzumenaren trebakuntza.
- 5- Ezker-eskuaren teknika:
 - 1. posizion eskuaren kokapena. Hatz lodiaren erlazazioa.
 - Ukondoaren kulunkaren mugimendua eta hari ezberdinetatik eskuaren traslazioaren lanketa.
 - Artikulazioa eta digitazioa: (0-1-23-4), (0-12-3-4) eta (0-1-2-34) hatz-formazioen erabilpena.
 - Hatzen mugimendu bertikala eta horizontala, mendekotasunik eza eta abiaduraren lanketa.
 - Eskalak eta arpegioak 1. posizioan.
 - Afinazioaren etengabeko garapena, kantuaren bidez, soinua arretatsu entzunez eta berehala zuzentzeko ohituraren bidez.
- 6- Irakurketa espezifikoa:
 - 1. posizioaren ezagutza: noten izenak, biolinean duten kokapena eta beraien idazkera musikala.
 - Maila honi dagozkion partituraren ikurrak eta indikazioen ulerpena eta interpretazioa: arku-behera, arku-gora; hatzen zenbakikuntza, *pizzicatoa*, kalderoia, etb.
- 7- Espresio musikala:
 - Fraseo musikalaren oinarrizko ezagutza. Oso bestelako dinamikak (*forte*, *pianoa*).
 - Oso sinpleak diren egitura musikalen ulerpena.
 - Jendeaurrean jotzearen lehenengo esperientzi musikalen bizipena eta gozamina.
- 8- Entzumen-oroimena, ikuste-oroimena eta muskulu-oroimenak lantzeko jarduera iraunkor eta progresiboa. Obrak buruz jotzeko ohituraren sustapena.
- 9- Mailari dagokion errepertorioaren ikasketa:
 - Zailtasun-maila kontuan hartuta, ikaslearen musika eta teknika gaitasuna batera garatzeko, egokiak diren, ariketa, estudio eta errepertorioko obren aukeraketa mailakatua.

10- Ohituren lorpena:

- Ikasketa pertsonala jarraia eta ondo antolatuta izatearen garrantziaren ulermena eta jarduera.
- Instrumentua ondo zaindu, mantendu eta garbitzeko ohiturak.

METODOLOGIA

Metodologia hau gutxi gorabeherakoa da. Ez dago material aukera bakarra, ikasle bakoitzari aproposena egokitu behar zaio. Norberaren beharren arabera, abiadura eta zailtasun maila desberdinekin landuko da aukeratutako materiala.

METODOAK

- **ALFARAS:** Stradivari. I. liburukia.
- **ANDERSON & FROST:** All for strings. I. liburukia.
- **BLACKWELL:** Fiddle Time Runners.
- **COHEN:** Eta Cohen Violin Method. I. liburukia.
- **CRICKBOOM:** Biolin Teoriko-Praktikoa. I. liburukia.
- **FORTUNATOV:** Il Giovane Violinista.
- **GARLEJ-GONZALEZ:** Methode de Violon. I. liburukia.
- **HERFURTH:** Scale book.
- **JOACHIM & MOSER:** Violinschule.
- **MITU-HAMZEA-LIZASO:** Biolin Eskola. I. liburukia.
- **ROLLAND-JOHNSON:** Young Strings in Action. I. liburukia.
- **SALLY O'REILLY:** Fiddle Magic.
- **SEVCIK:** The Little Sevcik.

OBRAK

- **CRICKBOOM:** Chants et Morceaux. I. liburukia.
- **NELSON:** Spin-a-Tune.
- **NÖMA -MARTIN:** Talde Instrumentala. I. liburukia.
- **SUZUKI:** Violin School. I. liburukia.

BESTEAK

- Audioak: **BLACKWELL** (Fiddle Time Runners), **SUZUKI** (Violin School. I liburukia.).

EBALUAZIO-TRESNAK	KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK
Ikaslearen segimendua:	70%
- Ikasteko ohiturak	- 20%
- Postura	- 20%
- Soinua	- 30%
- Afinazioa	- 30%
Entzunaldiak:	30%
- Eszenan duen portaera	- 20%
- Teknikaren menderatze maila	- 80%

*OHARRA: ikasleak entzunaldirik egin ez duen ebaluazioetan, entzunaldiei dagokien %30, proba tekniko-interpretatiboen bidez edo ikaslearen segimenduaren bidez baloratuko da, irakaslearen irizpidearen arabera.

EBALUAZIOAREN ONDORIOAK

- Ebaluaketa Jarraia galdu duten ikasleek, ohiko deialdi espezifikotan (ekainaren hasieran) egiten den ERREKUPERAZIOZKO FROGA TEKNIKO-INTERPRETATIBOA gainditu beharko dute.
- Ohiko ebaluaketan (azken kalifikazioa) emaitza negatiboa duten ikasleek, ez-ohiko deialdira aurkezteko aukera izango dute; bertan, ERREKUPERAZIOZKO FROGA TEKNIKO-INTERPRETATIBOA gainditu beharko dute (ekainaren erdialdera).
- Ikasgaia gainditu gabe izanik, hurrengo kurtsora promozionatzen duten ikasleek, hurrengo kurtsorearen edozein ebaluaketan zintzilika gelditu zaien ikasgaia errekeratzeko aukera izango dute.

ERREKUPERAZIOZKO FROGA TEKNIKO-INTERPRETATIBOA

- Programa hau irakasle-tutoreak egingo du, bere ustez ikasleak gainditu beharreko alderdi tekniko edota interpretatiboen arabera.
- Froga hau ekainean egingo da, ikastetxeak edo bestela, dagokion irakasleak ezarritako eguna, lekua eta ordutan.

OHARRAK

Oinarrizko Irakaskuntzaren lehenengo kurtsoa gainditzeko gutxieneko programa:

- ❖ **Eskala maiorrak eta arpegioak** lehenengo posizioan: ikasleak Sol M (bi zortzidun) eta Re M, LaM, Do M (zortzidun bat) eskalak landu behar izan ditu.
- ❖ **Pieza (edo estudio) motzak:** ikasleak gutxienez 10 pieza edo estudio landu behar izan ditu. Bertan, kurtsoko edukietan agertzen diren alderdi tekniko-espresibo ezberdinak barneratuak egon behar dira (tonalitateak, digitazioak, arku-kolpeak, ñabardurak, afinazioa, soinua); horietako batzuk **buruz**. Halaber, pieza bat **jendearean interpretatu** behar izan du.

IKASTETXEA	CPM FRANCISCO ESCUDERO MKP	KODEA	012681
IRAKASGAIA	BIOLINA	KURTSOA	2. OINARRIZKO IRAKASKUNTZA

HELBURUAK	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK
<ul style="list-style-type: none"> - 1. kurtsoan ikasitako oinarriak eta ezagutza sendotzea. - Instrumentua ondo kokatzeko, alferrikako tentsioetatik libre dagoen gorputz-jarrera egokia edukitzea. - Parte hartzen duten gorputz-atal guztien mugimenduaren malgutasuna errazten duen gorputz-oreka mantentzea. - Besoa, eskua eta hatz eskubien posizio egokia mantentzea, artikulazioak, besoaren pisuaren banaketa eta hatzen malgutasuna eta oreka kontralatzuz. - Kurtsoan zehar landutako arku-kolpeak egokiro egitea. - Soinu kalitate ona lortzea eta bere etengabeko hobekuntza eragiten duen entzumen-sentikortasuna erakustea. - Ezkerreko besoak eta hatzek, beraien jarduera errazteko posizio egokia mantentzea. - Ezker-hatzak egokiro artikulatzea. - Bi besoan jarduera eta mugimendua koordinatzea. - 1. posizioa finkatzea eta 2. edota 3. posizioak ikasten hastea. - Posizio aldaketen oinarritzko teknika ikasten hastea. - Tonalitate minorrak ikasten hastea. - Jotzearen une orotan, afinazio zuzenaren bilakeraren jarrera garatzea. - Erritmoa, abiadura eta argitasun egokiarekin egitea. - Landutako erreperkoriaren beharrei erantzutearren, ñabardura-dinamiko sorta zabaltzea. - Instrumentua jotzean, muskuluen tonua eta arnasketa egokiro erabiltzea. - Kurtsoaren mailerarentzako egokia diren obrak, estudioak eta ariketak egitea. - Maila honetan landutako errepertorioa buruz interpretatzea. - Instrumentua zaintzeko eta ikasteko ohitura onak lortzea. 	<p>1.- Teknika instrumentalaren jabetze-prozesu mailakatua erakustea, soinuaren ekoizpenaren eta interpretazioaren emaitza ona lortzeko zimendu sendoak eratzuz.</p> <p>Ebaluazio-irizpide honek, prozesuan parte hartzen duten gorputzaren atal guztien harteko oreka eta koordinazioa errazten duen gorputz-posizio egokia ipiniz, ezagupe berrien ikaskuntzak zimendu sendoen gainean eraikitzen diren ebaluatu nahi du.</p> <p>2.- Estudio eta obretan banakako mailakako ikaskuntza burutzeko ahalmena erakustea.</p> <p>Ebaluazio-irizpide honek, ikaslea irakaslearen esanak bere ikasketan aplikatzeko gai dela, eta horrela, bere errendimendua egoki ebaluatzeko autonomi mailakatua garatzeko gai dela, egiaztatu nahi da.</p> <p>3.- Obrak interpretatzea, dagozkion estilo-irizpideei jarraituz.</p> <p>Ebaluazio irizpide honek, ikasleak, bere heldutasun intelektual eta emozionalaren mailaren arabera, landutako obren oinarritzko alderdi estilistikoaren ezagutza, eta interpretatzeko duen autonomia eta ekimena egiaztatu nahi ditu.</p> <p>4.- Obra edo fragmentu sinpleak bat-batean irakurtzea.</p> <p>Ebaluazio-irizpide honek, ikasleak testu musikalak irakurtzen nolabaiteko autonomiaz aritzeko duen gaitasuna egiaztatzen du.</p> <p>5.- Musika-testuak buruz interpretatzea.</p> <p>Ebaluazio-irizpide honek, oroimenaren bidez, testu musikalaren ulermena eta eskuratutako musika-hizkuntzari buruzko ezagumendu teoriko-praktikoa zein teknika instrumentala barneratzeko ahalmena egiaztatzen du.</p> <p>6.- Jendeaurrean, bere mailaren adierazgarri den zenbait obra, bakarlari gisa eta buruz jotzea.</p> <p>Ebaluazio-irizpide honek autokontrol- ahalmena eta ikasitako obra menperatzen dela egiaztatu nahi du. Baita ere, jendeaurrean jotzeko egoerara zenbateraino ohituta dagoen ikustea.</p>

EDUKIEN SEKUENTZIA

- 1- Muskuluak luzatzeko eta berotzeko ariketa espezifikoak.
 - Teknika biolinistikoaren mugimendu ezberdinak prestatzeko eta alferrikako tentsioetatik libre egoteko aurre-ariketak.
- 2- Gorputzaren eta instrumentuaren posizioa:
 - Ikaslearen hazieran, bere gorputzak izaten dituen aldaketa fisikoak kontutan izanik, gorputz-instrumentuaren posizio orokorraren zainketa berezia.
 - Mugimenduen orekaren eta kontrolaren garapena interpretatzerakoan.
- 3- Arkoaren teknika eta soinu-produkzioan duen eragina:
 - Eskubi-eskuaren posizioaren segurtapena.
 - Eskubi-hatzen funtzioak.
 - Eskubi-besoaren artikulazioen eta pisu banaketaren kontrolaren garapena.
 - Hatzen malgutasuna eta oreka.
 - Arku ondo gidatzea. Kontaktua-puntu egokia bilaketa. Arkuaren zati guztien erabilpena (arku osoa, erdiak, herenak eta laurdenak).
 - Arkuaren dinamika eta abiadura ezberdinen garapen progresiboa.
 - Arku-kolpeen garapena: *detaché, martelé, legato, staccato* geldoa eta *portato*.
 - Arku-kolpeekin konbinatutako hari aldaketak.
 - Entzumen arretatsuen biden soinuaren garapena.
- 4- Ezker-eskuaren teknika:
 - Ezkerreko eskua eta hatzen posizio egokia izatea, hatz-formazio ezberdinetan.
 - Hatz-formazio ezberdinen erabilpena: (0-1-2-3-4), (0-1-2-3-4), (01-2-3-4), (0-1-2-3-4), (0-1-2-3-4). Laugarren hatzaren luzapena.
 - Hatzen mugimendu bertikala (artikulazioa) eta horizontalaren trebakuntza, beraien malgutasuna, indarra, abiadura eta menpetasunik eza garatuz.
 - Ariketa kromatiko sinpleak.
 - Zortzidun harmonikoen esplorazioa.
 - Eskala eta arpegioak 1. posizioan.
 - 1. posizioa sendotzea. 2. edota 3. posizioen hastapen arina egiteko ariketa sinpleak.
 - Posizio aldaketen prestatze-ariketak sinpleak (hariak airean erabiliz; abiatze-behatza eta heltze-behatza berdina erabiliz).
 - Tonalitate minorren hastapena.
 - Hari bikoitzak, hari bat behintzat airean izanik.
 - Afinazioaren etengabeko garapena, kantuaren bidez, soinua arretatsu entzunez eta berehala zuzentzeko ohituraren bidez.
- 5- Espresio musikala:
 - Maila honi dagozkion partituran azaltzen diren ikurrak eta indikazioen interpretazioa.
 - Interpretatzen diren piezen oinarrizko analisiaren bidez, fraseoaren ezagutza. Egitura bakunen ezagutza.
 - Oso bestelako dinamikak (*f, p*), *crescendo* eta *decrescendo*. Azentuak.
 - Jendearean jotzearen esperientzi musikalen bizipena eta gozamena.
 - Oso sinpleak diren patroieritmikoen gainean improbisazioaren hastapena.
- 6- Entzumen-oroimena, ikuste-oroimena eta muskulu-oroimenak lantzeko jarduera iraunkor eta progresiboa. Obrak buruz jotzeko ohituraren sustapena.
- 7- Mailari dagokion erreperitorioaren ikasketa:
 - Zailtasun-maila kontuan hartuta, ikaslearen musika eta teknika gaitasuna batera garatzeko, egokiak diren, ariketa, estudio eta erreperitorioko obren aukeraketa mailakatua.
- 8- Ikasteko teknikak:
 - Egunero ikasteko ohituraren lorpena.
 - Ikasten erabiltzen den denboraren antolamendu eta banaketa eraginkorra.

- Ikasketa pertsonalean, ikasgelan landutako kontzeptuen aplikazioa.
- Autoentzumena eta autozuzenketaren garapena. Arazo espezifikoaren ebazpena.

METODOLOGIA

Metodologia hau gutxi gorabeherakoa da. Ez dago material aukera bakarra, ikasle bakoitzari aproposena egokitu behar zaio. Norberaren beharren arabera, abiadura eta zailtasun maila desberdinekin landuko da aukeratutako materiala.

METODOAK

- **ANDERSON – FROST:** All For Strings. I. eta II. liburukiak.
- **BLACKWELL :** Fiddle Time Scales. I. liburukia
- **BLACKWELL :** Fiddle Time Sprinters.
- **COHEN:** Eta Cohen Violin Method. I.eta II. liburukiak.
- **CRICKBOOM:** Biolin Teoriko-Praktikoa. I. eta II. liburukiak.
- **CRICKBOOM:** Biolinaren Teknika. I. bliburukia.
- **GARLEJ–GONZALEZ:** Methode de Violon. I. eta II. liburukiak.
- **HERFURTH:** Scale book.
- **JOACHIM & MOSER:** Violinschule.
- **MITU–HAMZEA–LIZASO:** Biolin Eskola. I. eta II. liburukiak.
- **O’REILLY:** Fiddle Magic.
- **ROLLAND–JOHNSON:** Young Strings in Action. I. eta II. liburukiak.
- **SALLY O’REILLY:** Fiddle Magic.
- **SEVCIK:** The Little Sevcik.
- **VAN DE VELDE:** Le petit Paganini. III. liburukia.

OBRAK

- **CRICKBOOM:** Chants et Morceaux. I. eta II. liburukiak.
- **ELGAR:** Six very easy pieces in first position.
- **GARCIA ABRIL:** 12 pieza biolina eta pianorentzako.
- **KÜCHLER:** Sol M-en Kontzertinoa, Op.11.
- **NELSON:** Spin-a-Tune.
- **NÖMAR-MARTIN:** Talde Instrumentala. I. eta II. liburukiak.
- **PERLMAN:** Indian Kontzertinoa.
- **SUZUKI:** Violin School. I eta II. liburukiak.

BESTEAK

- Audioak: **BLACKWELL** (Fiddle Time Sprinters), **SUZUKI** (Violin School. I. eta II. liburukiak).
- Duoak: **SUZUKI**

EBALUAZIO-TRESNAK	KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK
Ikaslearen segimendua:	70%
- Ikasteko ohiturak	- 20%
- Postura	- 20%

- Soinua	- 30%
- Afinazioa	- 30%
Entzunaldiak:	30%
- Eszenan duen portaera	- 20%
- Teknikaren menderatze maila	- 80%
<p>*OHARRA: ikasleak entzunaldirik egin ez duen ebaluazioetan, entzunaldiei dagokien %30 proba tekniko-interpretatiboen bidez edo ikaslearen segimenduaren bidez baloratuko da, irakaslearen irizpidearen arabera.</p>	

EBALUAZIOAREN ONDORIOAK

- Ebaluaketa Jarraia galdu duten ikasleek, ohiko deialdi espezifikoan (ekainaren hasieran) egiten den ERREKUPERAZIOZKO FROGA TEKNIKO-INTERPRETATIBOA gainditu beharko dute.
- Ohiko ebaluaketan (azken kalifikazioa) emaitza negatiboa duten ikasleek, ez-ohiko deialdira aurkezteko aukera izango dute; bertan, ERREKUPERAZIOZKO FROGA TEKNIKO-INTERPRETATIBOA gainditu beharko dute (ekainaren erdialdera).
- Ikasgaia gainditu gabe izanik, hurrengo kurtsora promozionatzen duten ikasleek, hurrengo kurtsorearen edozein ebaluaketan zintzilika gelditu zaien ikasgaia errekupearatzeko aukera izango dute.

ERREKUPERAZIOZKO FROGA TEKNIKO-INTERPRETATIBOA

- Programa hau irakasle-tutoreak egingo du, bere ustez ikasleak gainditu beharreko alderdi tekniko edota interpretatiboen arabera.
- Froga hau ekainean egingo da, ikastetxeak edota dagokion irakasleak ezarritako eguna, lekua eta orduan.

OHARRAK

Oinarrizko Irakaskuntzaren bigarren kurtsoa gainditzeko gutxieneko programa:

- ❖ **Eskala eta arpegiak:** ikasleak, lehenengo kurtsuan esandako eskalaz gain, Mib M, Fa M, Mi M, Si M (zortzidun batekoak) eta La M, Do M, Sib M (bi zortzidunekoak) eskalak landu behar izan ditu; baita ere, gutxienez, bi eskala minorrak, La m, Re m, Sol m, Mi m, Si m (zortzidun batekoak) artean aukeratuak.
- ❖ **Piezak (edo estudio) motzak:** ikasleak gutxienez 10 pieza edo estudio landu behar izan ditu; bertan, kurtsoko edukietan agertzen diren alderdi tekniko-espresibo ezberdinak barneratuak egon behar dira (posizioen hastapenak, tonalitatea, hatzen formazio ezberdin guztiak, arku-kolpeak, ñabardurak, afinazioa, soinua); horietako batzuk **buruz**.
Halaber, pieza bat **jendeaurrean interpretatu** behar izan du.

IKASTETXEA	CPM FRANCISCO ESCUDERO MKP	KODEA	012681
IRAKASGAIA	BIOLINA	KURTSOA	3. OINARRIZKO IRAKASKUNTZA

HELBURUAK	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK
<ul style="list-style-type: none"> - Aurreko kurtsotan ikasitako oinarriak eta ezagutza sendotzea. - Instrumentua ondo kokatzeko, alferrikako tentsioetatik libre dagoen gorputz-jarrera egokia edukitzea. - Parte hartzen duten gorputz-atal guztien mugimenduaren malgutasuna errazten duen gorputz-oreka mantentzea. - Besoa, eskua eta hatz eskubien posizio egokia mantentzea, artikulazioak, besoaren pisuaren banaketa eta hatzen malgutasuna eta oreka kontralatzuz. - Kurtsoan zehar landutako arku-kolpeak egokiro egitea. - Soinu kalitate ona lortzea eta bere etengabeko hobekuntza eragiten duen entzumen-sentikortasuna erakustea. - Ezkerreko eskuak eta hatzek, beraien jarduera errazteko, posizio egokia mantentzea. - Ezker-hatzak egokiro artikulatzea. - Bi besoan jarduera eta mugimendua koordinatzea. - Txioa eta beste ormamentazioak ikasten hastea. - Dagokion maila kontutan izanik, hari bikoitzak modu mailakatuan eta egokian lantzea. - 1., 2., 3. posizioak eta posizio-erdia lantzea. - Tonalitatei buruzko ezagutza finkatu eta tonalitate minor berriak lantzea. - Jotzearen une orotan, afinazio zuzenaren bilakeraren jarrera garatzea. - <i>Vibratoaren</i> mugimendua eta landutako estudio eta obretan bere erabilpen egokia ikasten hastea. - Harmoniko naturalen hastapenak ezagutzea. - Erritmoa, abiadura eta argitasun egokiarekin egitea. - Landutako erreperatoriaren beharrei erantzutearren, ñabardura-dinamiko sorta zabaltzea. - Instrumentua jotzean, muskuluen tonua eta arnasketa egokiro erabiltzea. - Kurtsoaren mailerarentzako egokia diren obrak, estudioak eta ariketak egitea. - Maila honetan landutako errepertorioa buruz interpretatzea. - Instrumentua zaintzeko eta ikasteko ohitura onak lortzea. - Taldetan parte hartzea eta jendearurrean jotzea. 	<p>1.- Teknika instrumentalaren jabetze-prozesu mailakatua erakustea, soinuaren ekoizpenaren eta interpretazioaren emaitza ona lortzeko zimendu sendoak eratuz.</p> <p>Ebaluazio-irizpide honek, prozesuan parte hartzen duten gorputzaren atal guztien harteko oreka eta koordinazioa errazten duen gorputz-posizio egokia ipiniz, ezagupe berrien ikaskuntzak zimendu sendoen gainean eraikitzen diren ebaluatu nahi du.</p> <p>2.- Estudio eta obretan banakako mailakako ikaskuntza burutzeko ahalmena erakustea.</p> <p>Ebaluazio-irizpide honek, ikaslea irakaslearen esanak bere ikasketan aplikatzeko gai dela, eta horrela, bere errendimendua egoki ebaluatzeko autonomi mailekatua garatzeko gai dela, egiaztatu nahi da.</p> <p>3.- Obrak interpretatzea, dagozkion estilo-irizpideei jarraituz.</p> <p>Ebaluazio irizpide honek, ikasleak, bere heldutasun intelektual eta emozionalaren mailaren arabera, landutako obren oinarriko alderdi estilistikoaren ezagutza, eta interpretatzeko duen autonomia eta ekimena egiaztatu nahi ditu.</p> <p>4.- Obra edo fragmentu sinpleak bat-batean irakurtzea.</p> <p>Ebaluazio-irizpide honek, ikasleak testu musikalak irakurtzen nolabaiteko autonomiaz aritzeko duen gaitasuna egiaztatzen du.</p> <p>5.- Musika-testuak buruz interpretatzea.</p> <p>Ebaluazio-irizpide honek, oroimenaren bidez, testu musikalarren ulermena eta eskuratutako musika-hizkuntzari buruzko ezagumendu teoriko-praktikoa zein teknika instrumentala barneratzeko ahalmena egiaztatzen du.</p> <p>6.- Jendearrean, bere mailaren adierazgarri den zenbait obra, bakarlari gisa eta buruz jotzea.</p> <p>Ebaluazio-irizpide honek autokontrol- ahalmena eta ikasitako obra menperatzen dela egiaztatu nahi du. Baita ere, jendearrean jotzeko egoerara zenbateraino ohituta dagoen ikustea.</p>

EDUKIEN SEKUENTZIA

- 1- Gorputzaren eta instrumentuaren posizioa:
 - Ikaslearen hazieran, bere gorputzak izaten dituen aldaketa fisikoak kontutan izanik, gorputz-instrumentuaren posizio orokorraren zainketa berezia.
 - Mugimenduen orekaren eta kontrolaren garapena interpretatzerakoan.
- 2- Arkoaren teknika eta soinu-produkzioan duen eragina:
 - Eskubi-eskuaren posizioa segurtatzea.
 - Eskubi-besoaren artikulazioen eta pisu banaketaren kontrolaren garapena.
 - Hatzen malgutasuna eta oreka.
 - Soinuaren garapena. Soinuaren produkzioan eragina duten faktoreen lehenengo nozio teoriko-praktikoak (kontaktu-puntua, arkuaren abiadura, egindako presioa).
 - Arkuaren zati guztien erabilpena.
 - Arkuaren dinamika eta abiadura ezberdinen garapen progresiboa.
 - Arku-kolpeen garapena: *detaché*, *martelé handia*, *martelé*, *legato*, *staccato* eta *portato*. Beraien konbinaketak.
 - Arku-kolpeekin konbinatutako hari aldaketak. *Bariolajea* bi haritan zehar.
 - Hari bikoitzei dagozkien besoaren planu ezberdinen egokitzapena.
- 3- Ezker-eskuaren teknika:
 - Ezkerreko eskua eta hatzen posizio egokia, hatz-formazio ezberdinetan.
 - Hatzen mugimendu bertikala (artikulazioa) eta horizontalaren lanketa (trebakuntza), beraien malgutasuna, indarra, abiadura eta menpekotasunik eza garatuz.
 - Tonalitate maiorren garapena eta tonalitate minorren gehikuntza.
 - 1., 2. eta 3. posizioen ikasketa. Posizio aldaketen tekniken ikasketa progresiboa.
 - Eskalak eta arpegioak 1., 2. eta 3. posizioetan.
 - Eskala kromatikoen hastapena.
 - Hari bikoitzen garapen progresiboa (hari bat airean delarik, nota bat berdina delarik...)
 - Harmoniko naturalen hastapen teoriko-praktikoa.
 - *Vibratoa*: mugimendua garatzeko ariketak. Estudioetan eta obretan *vibratoa* erabiltzen hasia.
 - Afinazioaren etengabeko garapena, kantuaren bidez, soinua arretatsu entzunez eta berehala zuzentzeko ohituraren bidez.
- 4- Espresio musikala:
 - Maila honi dagozkion partituran azaltzen diren ikurrak eta indikazioen interpretazioa.
 - Interpretatzen diren piezen oinarrizko analisiaren bidez (estruktura, gaiak, tonalitatea, kokapen historikoa...), fraseoaren ezagutza.
 - Ornamentazio ezberdinen (txioak, mordenteak, apoiaturak) hastapena, musika espresatzeko baliabide bezala.
 - Dinamika sorta zabaltzea (erreguladoreak, ñabardurak, soinuaren koloreak).
 - Kreatibitate eta inprobisazioaren oinarrizko lana.
- 5- Entzumen-oroimena, ikuste-oroimena eta muskulu-oroimenak lantzeko jarduera iraunkor eta progresiboa. Obrak buruz jotzeko ohituraren sustapena.
- 6- Bat-bateko irakurketan lehen pausoak.
- 7- Mailari dagokion errepertorioaren ikasketa:
 - Zailtasun-maila kontuan hartuta, ikaslearen musika eta teknika gaitasuna batera garatzeko, egokiak diren, ariketa, estudio eta errepertorioko obren aukeraketa mailakatua.
- 8- Ikasteko teknikak:
 - Egunero ikasteko ohitura eta ikasteta denboraren antolamendu egokiaren lorpena.
 - Ikasketa pertsonalean, ikasgelan landutako kontzeptuen aplikazioa.
 - Ikasketan azaltzen diren arazo teknikoak ebazteko behar den kriterioaren eta kapazitatearen lorpena. Autoentzumenaren eta autozuzenketaren garapena.

- Zentzu kritiko baikorraren eraketa.
- 9- Taldeko musikaren praktika:
 - Taldetan jotzean jarraitu behar diren arauen ezagupena.
- 10- Jendearrean jotzeko jarduera:
 - Jarduera arrakastatsuak lortzeko beharrezko diren gaitasunen sustapena.

METODOLOGIA

Metodologia hau gutxi gorabeherakoa da. Ez dago material aukera bakarra, ikasle bakoitzari aproposena egokitu behar zaio. Norberaren beharren arabera, abiadura eta zailtasun maila desberdinekin landuko da aukeratutako materiala.

METODOAK

- **BLACKWELL** : Fiddle Time Scales. II. liburukia.
- **BLACKWELL** : Fiddle Time Sprinters.
- **COHEN**: Eta Cohen Violin Method. I. eta II. liburukiak.
- **CRICKBOOM**: Biolin Teoriko-Praktikoa. II. eta III. liburukiak.
- **GARLEJ – GONZALEZ**: Methode de Violon. I. eta II. liburukiak.
- **KAYSER**: Op. 20 estudioak
- **MACKAY**: Position changing for the violin.
- **SALLY O'REILLY**: Fiddle Magic.
- **SEVCIK**: Op. 1 eta 2.
- **SITT**: Op. 32 estudioak. I., II. eta III. liburukiak.
- **VAN DE VELDE**: Le petit Paganini. III. liburukia.
- **WOHLFAHRT**: Op. 45 estudioak.
- **WHISTLER**: Introducing the positions. I. liburukia (3. pos.) eta II. liburukia (2. pos.).

OBRAK

- **CRICKBOOM**: Chants et Morceaux. II. eta III. liburukiak.
- **RIEDING**: Sol M-en kontzertinoa, Op. 34.
- **RIEDING**: Sim m-en kontzertinoa, Op. 35.
- **KÜCHLER**: Kontzertinoa, Op. 15.
- **SUZUKI**: Violin School. II. eta III. liburukiak.

BESTEAK

- Audioak: **BLACKWELL** (Fiddle Time Sprinters), **SUZUKI** (Violin School. II. eta III. liburukiak).
- Duoak: **MOZART**, **FLECTCHER** (New tunes for Strings), **BARLOW** (Easy Baroque Duets for violin).

EBALUAZIO-TRESNAK	KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK
Ikaslearen segimendua:	70%
- Ikasteko ohiturak	- 20%
- Postura	- 20%
- Soinua	- 30%

- Afinazioa	- 30%
Entzunaldiak:	30%
- Eszenan duen portaera	- 20%
- Teknikaren menderatze maila	- 80%
<p>*OHARRA: ikasleak entzunaldirik egin ez duen ebaluazioetan, entzunaldiei dagokien %30 proba tekniko-interpretatiboen bidez edo ikaslearen segimenduaren bidez baloratuko da, irakaslearen irizpidearen arabera.</p>	

EBALUAZIOAREN ONDORIOAK

- Ebaluaketa Jarraia galdu duten ikasleek, ohiko dehialdi espezifikoa (ekainaren hasieran) egiten den ERREKUPERAZIOZKO FROGA TEKNIKO-INTERPRETATIBOA gainditu beharko dute.
- Ohiko ebaluaketan (azken kalifikazioa) emaitza negatiboa duten ikasleek, ez-ohiko deialdira aurkezteko aukera izango dute; bertan, ERREKUPERAZIOZKO FROGA TEKNIKO-INTERPRETATIBOA gainditu beharko dute (ekainaren erdialdera).
- Ikasgaia gainditu gabe izanik, hurrengo kurtsoa promozionatzen duten ikasleek, hurrengo kurtsoaren edozein ebaluaketan zintzilika gelditu zaien ikasgaia errekeratatzeko aukera izango dute.

ERREKUPERAZIOZKO FROGA TEKNIKO-INTERPRETATIBOA

- Programa hau irakasle-tutoreak egingo du, bere ustez ikasleak gainditu beharreko alderdi tekniko edota interpretatiboen arabera.
- Froga hau ekainean egingo da, ikastetxeak edota dagokion irakasleak ezarritako eguna, lekua eta orduan.

OHARRAK

Oinarrizko Irakaskuntzaren hirugarren kurtsoa gainditzeko gutxieneko programa:

- ❖ **Eskala eta arpegiok:** ikasleak eskala maiorrak eta minorrak (3b-tik 4# -tara) eta bere arpegiok landu behar izan ditu.
- ❖ **Pieza eta estudio motzak (laburrak):** ikasleak gutxienez 12 piezas edota estudio landu behar izan ditu. Pieza eta estudio hauetan, kurtsoa edukietan agertzen diren alderdi tekniko-espresibo ezberdinak barneratuak egon behar dira (horietako batzuk posizio aldaketak edota lehenengo posizioa ez den beste posizioen bat barne izan behar dute, hatzen formazio ezberdin guztiak, arku-kolpeak, ñabardurak, afinazioa, soinua). Horietako batzuk **buruz**. Halaber, pieza bat **jendeaurrean interpretatu** behar izan du.
- ❖ Lehenengo posizioan dauden pasarte musikalen **bat-bateko irakurketa**.

IKASTETXEA	CPM FRANCISCO ESCUDERO MKP	KODEA	012681	IKASTURTEA	2016-2017
IRAKASGAIA	BIOLINA	KURTSOA	4. OINARRIZKO IRAKASKUNTZA		

HELBURUAK	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK
<ul style="list-style-type: none"> - Aurreko kurtsotan ikasitako oinarriak eta ezagutza sendotzea. - Instrumentua ondo kokatzeko, alferrikako tentsioetatik libre dagoen gorputz-jarrera egokia edukitzea. - Parte hartzen duten gorputz-atal guztien mugimenduaren malgutasuna errazten duen gorputz-oreka mantentzea. - Besoa, eskua eta hatz eskubien posizio egokia mantentzea, artikulazioak, besoaren pisuaren banaketa eta hatzen malgutasuna eta oreka kontralatu. - Kurtsoan zehar landutako arku-kolpeak egokiro egitea. - Soinu kalitate ona lortzea eta bere etengabeko hobekuntza eragiten duen entzumen-sentikortasuna erakustea. - Ezkerreko eskuak eta hatzek, beraien jardura errazteko, posizio egokia mantentzea. - Ezker-hatzak egokiro artikulatzea. - 1., 2., eta 3. posizioak sendotzea eta 4. eta 5. posizioak lantzen hastea. - Lehenengo bost posizioen harteko posizio-aldaketak lantzea. - Errepertorioa jotzean afinazio zuzena mantentzeko behar den entzumen-sentikortasuna garatzea. - Landutako estudio eta obretan <i>vibratoa</i> erabiltzea. - Bi besoan jardura eta mugimendua koordinatzea. - Txioa eta beste ormamentazioak ikasten jarraitzea. - Dagokion maila kontutan izanik, hari bikoitzak modu mailakatuan eta egokian lantzea. - Erritmoa, abiadura eta argitasun egokiarekin egitea. - Instrumentua jotzean, muskuluen tonua eta arnasketa egokiro erabiltzea. - Landutako errepertoriaren beharrei erantzutearren, ñabardura-dinamiko sorta zabaltzea. - Kurtsoaren mailarentzako egokia diren obrak, estudioak eta ariketak egitea. - Maila honetan landutako errepertorioa buruz interpretatzea. - Bat-bateko obra edo fragmentu sinpleen irakurketa lantzea. - Ikasteko ohitura onak erakustea. - Taldetan parte hartzea eta jendearurrean jotzea. 	<p>1.- Teknika instrumentalaren jabetze-prozesu mailakatu erakustea, soinuaren ekoizpenaren eta interpretazioaren emaitza ona lortzeko zimendu sendoak eratuz.</p> <p>Ebaluazio-irizpide honek, prozesuan parte hartzen duten gorputzaren atal guztien harteko oreka eta koordinazioa errazten duen gorputz-posizio egokia ipiniz, ezagupe berrien ikaskuntzak zimendu sendoen gainean eraikitzen diren ebaluatu nahi du.</p> <p>2.- Estudio eta obretan banakako mailakako ikaskuntza burutzeko ahalmena erakustea.</p> <p>Ebaluazio-irizpide honek, ikaslea irakaslearen esanak bere ikasketan aplikatzeko gai dela, eta horrela, bere errendimendua egoki ebaluatzeko autonomi mailakatu garatzeko gai dela, egiaztatu nahi da.</p> <p>3.- Obrak interpretatzea, dagozkion estilo-irizpideei jarraituz.</p> <p>Ebaluazio irizpide honek, ikasleak, bere heldutasun intelektual eta emozionalaren mailaren arabera, landutako obren oinarriko alderdi estilistikoaren ezagutza, eta interpretatzeko duen autonomia eta ekimena egiaztatu nahi ditu.</p> <p>4.- Obra edo fragmentu sinpleak bat-batean irakurtzea.</p> <p>Ebaluazio-irizpide honek, ikasleak testu musikalak irakurtzen nolabaiteko autonomiaz aritzeko duen gaitasuna egiaztatzen du.</p> <p>5.- Musika-testuak buruz interpretatzea.</p> <p>Ebaluazio-irizpide honek, oroimenaren bidez, testu musikalarren ulermena eta eskuratutako musika-hizkuntzari buruzko ezagumendu teoriko-praktikoa zein teknika instrumentala barneratzeko ahalmena egiaztatzen du.</p> <p>6.- Jendearrean, bere mailaren adierazgarri den zenbait obra, bakarlari gisa eta buruz jotzea.</p> <p>Ebaluazio-irizpide honek autokontrol- ahalmena eta ikasitako obra menperatzen dela egiaztatu nahi du. Baita ere, jendearrean jotzeko egoerara zenbateraino ohituta dagoen ikustea.</p>

EDUKIEN SEKUENTZIA

1- Gorputzaren eta instrumentuaren posizioa:

- Ikaslearen hazieran, bere gorputzak izaten dituen aldaketa fisikoak kontutan izanik, gorputz-instrumentuaren posizio orokorraren zainketa.
 - Mugimenduen orekaren eta kontrolaren garapena interpretatzerakoan.
- 2- Arkuaren teknika eta soinu-produkzioan duen eragina :
- Eskubi-eskuaren posizioa segurtatzea.
 - Eskubi-besoaren artikulazioen eta pisu banaketaren kontrolaren garapena.
 - Hatzen malgutasuna eta oreka.
 - Soinuaren garapena. Soinuaren produkzioan eragina duten funtsezko faktoreen arteko elkarrekiko menpekotasunaren lana (Kontaktu-puntua, arkuaren abiadura, egindako presioa).
 - Arkuaren zati guztien erabilpena.
 - Arkuaren dinamika eta abiadura ezberdinen hedapena eta garapena.
 - Arku-kolpeen eta bere konbinaketan hedapena eta garapena, artikulazio eta erritmo ezberdinak erabiliz.
 - Arku-kolpe jauzlarien lehenengo urratsen ezagupenak.
 - Arku-kolpeekin konbinatutako hari aldaketak. *Bariolajea* bi eta hiru haritan zehar.
 - Hari bikoitzen garapen mailekatua. Hari bikoitzen plano ezberdinen arteko aldaketan teknika.
 - Akordeen hastapena (akorde zatikatua).
- 3- Ezker-eskuaren teknika:
- Ezkerreko eskua eta hatzen posizio egokia sendotzea.
 - Hatzen artikulazioa, abiadura eta menpekotasunik ezaren garapena. Txioaren ikasketa.
 - Lehenengo hiru posizioen sendotze lana. 4. eta 5. posizioen hastapenak. Posizio aldaketan garapen mailakatua.
 - Eskalak eta arpegioak 5. posizioraino.
 - Hari bikoitzen oinarritzko garapena.
 - Akordeen teknikaren oinarritzko ezagutza (afinazio tenperatua, besoaren posioa egokitu beharra).
 - *Vibratoa*: tentsioetatik libre eta erregularra den *vibratoaren* bilaketa; bere aplikazioa estudio eta obretan.
 - Afinazioaren etengabeko garapena, kantuaren bidez, soinua arretatsu entzunez eta berehala zuzentzeko ohituraren bidez.
- 4- Espresio musikala:
- Ikasitako baliabide espresiboen garapena eta aplikazioa obretan (ñabardurak, erreguladoreak, sonoritate ezberdinak, azentuak, ornamentuak, *vibratoa*).
 - Interpretatu behar diren obren alderdi ezberdinen analisia (estruktura, elementu erritmiko eta melodikoak, tonalitatea, kadentziak, kokapen historikoa...), horren bitartez interpretazio kontzienterantz iristeko oinarriak ezartzeko.
 - Fraseoa eta bere egokitzapena estilo ezberdinetan.
 - Inprobisazio lana.
 - Abesti edo gai sinpleen sortze-lana.
 - Pultsu-erritmikoa barneratze prozesua.
- 5- Entzumen-oroimena, ikuste-oroimena eta muskulu-oroimenak lantzeko jarduera iraunkor eta progresiboa. Obrak buruz jotzeko ohituraren sustapena.
- 6- Bat-bateko irakurketa 1. posizioan.
- 7- Mailari dagokion erreperitorioaren ikasketa:
- Zailtasun-maila kontuan hartuta, ikaslearen musika eta teknika gaitasuna batera garatzeko, egokiak diren, ariketa, estudio eta erreperitorioko obren aukeraketa mailakatua.
- 8- Ikasteko teknikak:
- Egunero ikasteko ohitura eta ikasteta denboraren antolamendu egokiaren lorpena.
 - Ikasketa pertsonalean, ikasgelan landutako kontzeptuen aplikazioa.
 - Geroz eta autonomia haundiagoa, arazoak aztertu eta ebazteko.

- Zentzu kritiko baikorraren eraketa.
- 9- Taldeko musikaren praktika.
- 10- Jendeaurrean jotzeko jarduera:
 - Prestakuntza teknikoa eta psikologikoa.
 - Autoestimazioaren errefortzua eta autokritika baikorraren garapena.

METODOLOGIA

Metodologia hau gutxi gorabeherakoa da. Ez dago material aukera bakarra, ikasle bakoitzari aproposena egokitu behar zaio. Norberaren beharren arabera, abiadura eta zailtasun maila desberdinekin landuko da aukeratutako materiala.

METODOAK

- **CRICKBOOM:** Biolin Teoriko-Praktikoa. III. eta IV. liburukiak.
- **KAYSER:** Estudioak, Op. 20.
- **KREUTZER:** Estudioak.
- **MAZAS:** Op.36. I bild.
- **POLO:** Hari bikoitzak.
- **SEVCIK:** Op. 1 eta 2.
- **SITT:** Estudioak, Op. 32. II. eta III. liburukiak.
- **TROTT:** Hari bikoitzak.
- **WHISTLER:** Developing Double-Stops.
- **WHISTLER:** Introducing the Positions. I. eta II. liburukiak.
- **WOHLFAHRT:** Estudioak, Op. 45.

OBRAK

- **CRICKBOOM:** Chants et Morceaux. IV. liburukia.
- **NELSON:** Baroque Violinist.
- **JEAN-MARIE:** Cinquantane.
- Kontzertinoak: **SEITZ, RIEDING, HUBER, KÜCHLER** (Op. 12).
- Kontzierto eta Sonata Barrokoak: **VIVALDI, TELEMANN, CORELLI**, etb.
- **SUZUKI:** Violin School. III. eta IV. liburukiak.

*Orokorrean, gutxienez, 3. posiziorainoko posizio aldaketak eta posizioa finkoak dauzkaten obrak.

BESTEAK

- Audioak: **SUZUKI** (Violin School. III. eta IV. liburukiak).
- Duoak: **APPLEBAUM** (Beautiful music for two violins).
- Duoak pianoarekin: **BÖHM** (12 pieza 2 biolin eta pianoarentzako), **SCHOSTAKOWITSCH** (5 pieza 2 biolin eta pianoarentzako).

EBALUAZIO-TRESNAK	KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK
Ikaslearen segimendua:	70%
- Ikasteko ohiturak	- 20%
- Postura	- 20%

- Soinua	- 30%
- Afinazioa	- 30%
Entzunaldiak:	30%
- Eszenan duen portaera	- 20%
- Teknikaren menderatze maila	- 80%
<p>*OHARRA: ikasleak entzunaldirik egin ez duen ebaluazioetan, entzunaldiei dagokien %30 proba tekniko-interpretatiboen bidez edo ikaslearen segimenduaren bidez baloratuko da, irakaslearen irizpidearen arabera.</p>	

EBALUAZIOAREN ONDORIOAK

- Ebaluaketa Jarraia galdu duten ikasleek, ohiko deialdi espezifikoa (ekainaren hasieran) egiten den ERREKUPERAZIOZKO FROGA TEKNIKO-INTERPRETATIBOA gainditu beharko dute.
- Ohiko ebaluaketan (azken kalifikazioa) emaitza negatiboa duten ikasleek, ez-ohiko deialdira aurkezteko aukera izango dute; bertan, ERREKUPERAZIOZKO FROGA TEKNIKO-INTERPRETATIBOA gainditu beharko dute (ekainaren erdialdera).
- Ikasgaia gainditu gabe izanik, hurrengo kurtsora promozionatzen duten ikasleek, hurrengo kurtsorearen edozein ebaluaketan zintzilika gelditu zaien ikasgaia errekupearatzeko aukera izango dute.

ERREKUPERAZIOZKO FROGA TEKNIKO-INTERPRETATIBOA

- Programa hau irakasle-tutoreak egingo du, bere ustez ikasleak gainditu beharreko alderdi tekniko edota interpretatiboen arabera.
- Froga hau ekainean egingo da, ikastetxeak edota dagokion irakasleak ezarritako eguna, lekua eta orduan.

OHARRAK

Oinarrizko Irakaskuntzaren laugarren kurtsoa gainditzeko gutxieneko programa:

- ❖ **Eskala eta arpegioak:** ikasleak, bi zortziduneko eskala maiorrak eta minorrak landu behar izan ditu, bakoitzak bere bost arpegioekin, lehenengo hiru posizioen eremuan (Do M, Re M, Do m, Re m, gutxienez).
- ❖ **Estudioak:** ikasleak, 9-12 estudio (zailtasunaren arabera) landu behar izan ditu; bertan, kurtsoko edukietan agertzen diren alderdi tekniko ezberdinak barneratuak egon behar dira.
- ❖ **Obrak:** ikasleak, gutxienez, bi estilo ezberdinetako obrak landu behar izan ditu; bertan, posizio aldaketak edota lehenengo posizioa ez den beste posizioen erabili behar dira; halaber, obra horietan *vibratoa* erabili behar izan du, baliadibe espresiboa bezala.
Gutxienez, obra bat **jendeaurrean interpretatu** behar izan du, **buruz**.
- ❖ **Bat-bateko irakurketa.**